

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2025-05-05

BILERA ZENBAKIA: 5

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea), Erkuden eta Maider.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

Bileran bi gai landu dira batik bat, azoka eta harrera eguna.

Bigarren eskuko arropa azoka:


Maiatzaren 16an azoka berezia ospatuko da herrian eta data aprobetxatuko dugu bigarren eskuko arropa azoka egiteko. Ekintza honetarako gizonentzako arropa eskatuko dugu batez ere, eta Gurutze Gorriak (ongizate sareko Laura) kudeatzen duen harrera proiekturako bideratuko da. Azokan bertan Amparo, Ana eta Maddi izango dira.

Urtean bi azoka antolatzen ditugu eta parte hartzea txikituz doala ikusirik ekintzak tematika ezberdinei lotzea adostu dugu. Kasu honetan, arropa azokarako gizonentzako arropa eskatuko dugu. Eta neguko azoka jostailu azoka izan beharrean, "bigarren eskuko ipuin azoka" izatea proposatu dugu, Era horretan, antolatzen ditugun azokak aldatuz joango dira eta jendearen parte hartzea mantenduko dela espero dugu.

Harrera eguna:

Ekainaren 18an harrera eguna ospatuko dugu eta hurrengo ongizate bileran (ekainaren 9an) horren lanketa egingo dugu. Egunean bertan E.H. mapa erabiltzea erabaki dugu, harrerara datozenen burua kokatzen laguntzeko asmoz. Markesinan, aurreko urtean egindako mapa erakutsi eta soziedadean merienda egingo dugu.

Herrian harrera iraunkorra/etengabea egitea proposatu da. Jarraitu beharreko pausuak:



1. Jose Luisek errolda egin

2. Formularioa bete

3. Bharrera boluntarioak harremana sortu

4. Hitzordua

**Harrera protokoloaren beharra aipatu dugu eta protokoloa idazteko profesionalen laguntza kontratatzea proposatu da.*

Bestelakoak:

Ongizate sarea watsap taldean Laura, Jabi eta Ainhoa sartzea adostu dugu.

Hurrengo bilera gaia: lokal publikoen erabilera.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Kartoi kutzak		Jabi
Mahai eskaera (3)		Maiden
E.H. mapa		Maiden
Soziedadean abisua eman		Maiden
Errolda berrien zerrenda eta hizkuntza eskakizunak		Bihotza
Gonbidapenak		Bihotza, Erkuden, Maiden
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: ekainaren 9an, 17:30etan, Udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		